

Jaun/Andere agurgarria,

Oraingo honetan ere gure eskualdeko enpresen lehiakortasunerako aukerak ikusirik, zuengana zuzentzen gara proposamen interesgarri batekin. Enpresa goierritarren egoera aztertuta, askoren jarduera produktiboan geldialdi bat egin eta **erreflexio estrategiko** bat egiteko aukera luzatu nahi genizueke GOIEKItik.

Merkatu globalizatu batean murgildurik, enpresa orok aurrikusi beharko luke bere egoera ekonomia honetan; horrela, lehen pausoa egoeraren diagnostikoa egitea izanen da, geure abantaila eta desabantailen albotik, xede eta helburu nagusiak finkatu ahal izateko. Hemendik abiatuko da plan operatiboa, non politika ezberdinak definitu eta enpresa bera antolatuko den xede horren bila.



Eskaintzen den programaren harira, GOIEKIn eduki teoriko eta praktikoko bilkurak antolatzen ditugu, non interesaturik dagoen oro gurekin harremanetan jar liteke edozein zalantza argitzeko. Aipatu bestalde, **doako** zerbitzu batez hitz egiten ari garela eta beraz, ez lukeela inongo kostu ekonomikorik suposatuko enpresentzat.

Gurekin harremanetan jartzeko:

Telefono zenbakia: 943 16 00 40
943 16 09 70

Posta elektronikoa: niko.goieki@goierri.org

Besterik gabe eta zuen arretagatik eskerrak emanaz,

Agur t´erdi

Nikolas Errasti
Enpresei zuzenduriko Zerbitzuen Saila
GOIEKI

ORDIZIAN, 2008ko abenduaren 1ean